

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

SEGURTASUN SAILA

5084

IRAGARKIA, zeinaren bidez epatzen baitira Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko auzien 1. zenbakiko Epaitegian izapidetzen ari den 290/2021 prozedura laburtuan interesa duten pertsonak.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiak erabaki zuen Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko auzien 1. zenbakiko Epaitegira bidaltzea prozedura honi buruzko administrazio-espedienteak:

290/2021 prozedura laburtua, Ertzaintzako karrerako funtzionario batek jarria, 2021eko maiatzaren 6ko ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez, aukerako berraztertze-errekurtsoa ezetsi zen. Ezetsitako errekurtsoa Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren 2021eko martxoaren 2ko ebazpenaren aurka aurkeztu zen. Ebazpen horrek Ertzaintzaren ikuskapen-eskalako ofizialaren kategoriara igotzeko hautaketa-prozedura deitu zuen.

Horregatik, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, prozeduran interesa duten pertsonak epatzen dira, bederatziz eguneko epean, iragarki hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko auzien 1. zenbakiko Epaitegian bertaratu daitezten, egoki baderitzone, euren legezko interesen alde egiteko.

Arkauti, 2021eko irailaren 15a.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
ANDRÉS ZEARRETA OTAZUA.